

WOOD, P. eta SMITH, J. (2018)

*Investigar en educación. Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación.* Narcea: Madril.

Ingelesetik gaztelaniara itzulitako lan baten inguruan ariko gara hurrengo lerroetan. Alde horretatik, komeni da esatea jatorrizko liburua (*Educational Research: Taking the Plunge*) 2016ean argitaratua izan dela eta bi urte geroago etorri dela gaztelaniazko bertsioa. Bi dira egileak, eta biek *University of Leicester* delakoan egiten dute lan irakasle-ikertzaile gisa: Phill Wood eta Joan Smith. Liburuaren kontrazalean gaztigitzen zaigunez, Erresuma Batuko zenbait hezkuntza-erakunde publikotako kideak dira, eta hezkuntzaren gaineko hainbat lan dituzte publikatuak.

Narcea argitaletxe madrildarrak *Educación hoy estudios* izeneko bilduman argitara eman du liburua. Gaztelaniazko izenburuak agertzen duen moduan, hezkuntza-ikerkuntzari buruzko oinarritzko alderdi askotarikoak aurkituko ditu irakurleak bertan, bai eta ikerkuntza-proiektu bat egokiro diseinatzeko giltzarri nagusiak ere. Hartara, egileek liburuaren hasieran adierazten dutenez, berez konplexua den hezkuntza-ikerkuntza azaltzeko eta langintza horren inguruan gogoeta egiteko zein erabakiak hartzeko baliabidetzat har dezakegu. Izan ere, horixe da liburuan proposatzen den norabidea: hezkuntzari eta ikerkuntzari buruzko panoramika bat jaso eta gero, ikerkuntzan abiatu nahi duen pertsonari bere proiektua diseinatzea gonbita egiten zaio. Bestela esateko, gaiari buruzko funtsezko teoria ulertuta, praktikara pasatzea proposatzen da.

Arestiko helburua(k) lortzeko bidean, lehen-lehenik, Gregorio Rodríguez Gómez irakasleak idatzitako gaztelaniazko edizioaren hitzaurrea dago. Lehenbiziko atal horretan liburuaren gaineko ikuspegi orokorra ematen zaigu, eta egileek nabarmendutako zenbait alderdi aurreratzen zaizkigu:

hezkuntzaren gaineko analisi eta hausnarketa sistematikoaren garrantzia, hezkuntza-ikerikuntzaren berezko izaera *inperfektua*, dimentsio etikoaren beharra edozein proiektutan nahiz hezkuntza behatzeko eta ikertzeko paradigma ezberdinak onartzea, besteak beste.

Ondotik, egile ingelesek zortzi kapitulutan egituraturako liburua dugu. Atalez ataleko norabide horretan, hezkuntzaren gaineko oinarrietatik abiatzeko asmo argia dago. Hala, lehen atalak definitzen du zer den (hezkuntza) ikertzea. Bigarrenean, printzipio etikoak hizpide hartzen dira, eta (ohiko) dilema batzuk planteatzen dira. Hurrengo bi kapituluetan, aurreko biak kontuan hartuta, ikerketa batean ohikoak diren kontzeptuak eta prozedurak argitzen dira: literatura zientifikoa, idazketa akademikoa, pentsamendu kritikoa, marko teorikoa, hasierako galderak edota aztergaiaren testuingurua. Luzeena den bosgarren atalean, hezkuntza ikertzeko dauden zenbait metodologia ezberdinen berri ematen da, bai eta metodologia bakoitzaren tradizioa eta balizko ahulguneak zein diren adierazi ere. Hurrengo bi kapituluetan, berriz, kontu teknikoagoak jorratzen dira: datuak biltzeko dauden moduak eta tresnak, eta horien bidez lortutako datuen (kualitatiboen zein kuantitatiboen) gaineko analisisia. Azkenik, zortzigarren atalean, proiektu baten planteamenduaz eta garapenaz mintzatzen da, liburuan aletu direnak modu praktikoa batean erakutsi bidenabar. Amaitzeko, ohi den eran, lanean zehar aipatutako erreferentzia bibliografikoak eskaintzen dira, bai eta interesgarria iruditu zaigun (ingelesezko) bibliografia komentatua ere dozena bat erreferentziarekin.

Honenbestez, hezkuntza-ikerikuntzari buruzko kontuetan interesa duen ororentzat egokia izan daiteke Wooden eta Smithen liburua, batez ere hezkuntza ikertzen hasi nahi dutene pertsonentzat.

*Edu Zelaieta Anta*